

HEZKUNTZA. Espainiako Gobernuak euskara desagerrarazi nahi duela uste du Euskal Herrian Euskaraz taldeak

Villarren adierazpenak gogor kritikatu dituzte alderdiek eta sindikatuek

PSE-EEren ustez «bidegabeak eta zentzugabeak» dira Espainiako gobernu ordezkariaren hitzak

Agentziak | DONOSTIA

«Aurretik prestatutako probokazioa dira, gizartean alarma sortzen dute eta muturreko jarrera piztea dute helburu» Enrique Villarrek, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak, herenegun euskal hezkuntzaz esan zituenak, PSE-EEko Isabel Celaaren ustez. Hezkuntza sistema «nazionalismo xenofoboaren adibidea da» eta «Euskal Herriaren erreferentzia faltsuetan hezitakoak egiten ari dira ETArek belaraldi-ordezkapena», esan zuen Villarrek.

PSE-EEK orain arte bat egin du PPrekin Legebiltzarrean euskal hezkuntzaren kontrako erasoetan, baina oraingoan bakarrik utzi du. Hala ere Celaak aukera baliatu zuen hezkuntza sistemari kritika egiteko: «Iraina da esatea euskal hezkuntza sistemak terroristak hezten dituela, baina egia da euskal eskola publikoa aktiboagoa izan litekeela ETArek ideologiaren aurka».

Eusko Jaurilaritza osatzen du-



Enrique Villar, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria, aurreko agerraldi batean.

ten hiru alderdiek ere kritikatu zituzten atzo Villarren deklarazioak. Josu Jon Imaz Jaurilaritzako eledunaren ustez «onartezinak eta iraina dira euskal herritarrentzat».

Eusko Alkartasuneko Gorka Knörren ustez, bestalde, Enrique Villarrek «ez luke demokraziaren errebalida gaintutuko». Knörrek Villar bere kargutik kentzeko eskatu dio Espainiako Gobernuari.

IU-EBk ere Villarren karguga-

betzea eskatu zuen. Antton Karrera aburuz gisa horretako deklarazioak egin izanak «kargurako baliogabetu egiten du Villar». Karrera ustez, berriz ere agerian geratu da Villarren izaera: «Benetako fobia die ikasleak, euskarari eta euskal irakaskuntza sistema publikoari».

Sindikatuak ere gaitzetsi dituzte adierazpenak

EILAS sindikatuak gogor gaitzetsi zituen atzo Villarren adie-

razpenak. «Ez dugu gorrotoa irakasten, eta ez dugu ideologikoki hezten. Elkartasuna, besteen ideiekiko errespetua eta tolerantzia bezalako balioetan oinarritzen da gure irakaskuntza. Beraz, Villar jauna ez litza-teke izango gure ikasle hobere-na».

CCOO sindikatuaren ustez «gehiegizkoak eta neurritz kanpokoak» dira Villarrek egin zituen adierazpenak. Sindikatuak, hala ere, ez zuen aukera

galdu Hezkuntza Sailaren jarraira kritikatzeko: «Kontsentsutik haratago doan hizkuntz politika bultzatu nahi du».

Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak ere kritika gogorra egin du: «Euskararen eta euskal kutsua duen edozeren aurkako estrategia berriz ere agerian utzi du. Espainiako Estatuak euskara suntsitu eta desagerrarazi nahi du». Horri aurre egiteko orain arteko bidetik jarraitzeko asmoa du EHEk.

Monterok ukatu du Uriarteren katedra kentzeko erabakia presioen ondorioa izan dela

Agentziak | BILBO

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) errektore Manu Monterok begirunez hartu du Edurne Uriarteren katedra baliogabetu duen erabakia, eta, gainera, erabakia hartzean presioak egon izana ukatu du.

EHUko Erreklamazio Batzordeak herenegun erabaki zuen Zuzenbide Politikaren katedra Uriarteri kentzea, zeinak iaz lortu zuen Francisco Letamendiarekin lehian. Letamendiak berak aurkeztu zuen helegitea Uriarteren izendapenaren aurka, eta aipatutako Batzordeak ontzat hartu zuen errekursoaren zioetako bat.

Montero «guztiz sinetsita» dago erakunde unibertsitarioek «independentzia osoz» jokatu dutela. Errektoreak gogorarazi zuen katedrak emateko sistemak «bermeak» dituela nagusi, eta, horregatik, bazter utzi zuen erabakiaren gainean emandako «ikusuntu paranoikoa».

Monterok deia egin zien EHUko langileei alde batera uztera «gera politiko-mediati-koak».

Uriarte: «Nonahitik bota nahi gaituzte nazionalista ez garenok»

Edurne Uriarteren aburuz, berriz, Erreklamazio Batzordeak hartutako erabakia «ez da izan soil-soilik kontu akademiko

bat», eta arrazoi politikoak tar-tean direla uste du. Izan ere, Uriartek «presioak» salatu ditu, baita «EAJko zati erradikalaren eta Batasunaren bat egitea» ere katedraren ematea bertan behera utz zedin.

«Nazionalistak ez garen askok jazarpena jasaten dugu toki orotan, leku guztietatik bota nahi baikaituzte», esan zuen atzo.

Gainera, EHUko irakasleak Montero bera ere gogor kritikatu zuen, eta, hainbatek jasaten duten «jazarpena» dela eta, «ezikusiarrena» egitea egotzi zion.

Uriartek iragarri du bide judizialera joko duela Erreklamazio Batzordearen erabakia errekurritzeko. Irakaslearen iritziz, epaimahaiak bere garaian katedra ematea onetsi bazuen izan zen Letamendiaren kurrikulua «oso eskasa» zelako.

Jaurilaritzak eta sindikatuak irakaskuntza publikoko Lan Ituna aztertuko dute gaur

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko irakaskuntza publiko ez-unibertsitarioen Lan Hitzarmena eztabaidatzeko hitzordu erabakigarria izango dute gaur sindikatuak eta Eusko Jaurilaritzak alorreko mahaiaren bileran.

Administrazioak zorroborroa aurkezteko hitza eman zuen iragan urtarilaren amaieran egindako azken batzarrean, eta, beraz, Lakuak sindikatu bakoitzaren aldarriak noraino jaso dituen jakiteko bilera izango da gaurkoa.

Lan Hitzarmena marko orokorra izango da, eta bertan Lan Eskaintza Publikoa, egonkor-

tasunari buruzko politikak eta abar zehaztu beharko dira.

Azkenaldiko batasun sindikala hautsiko ote den beldurrez

Sindikatuak (CCOO, EILAS, LAB, ELA eta UGT) batera joan dira azkenaldion Hezkuntza Sailaren proposamenak zi-rela eta. Halere, batasun sindikalen aldeko giroa desagiten joan da azken asteotan, batez ere hizkuntz eskakizunik gabeko irakasleentzako eraginez, eta, batzuen ustez, litekeena da gaur batasunik eza lehenengoz agertzea. Gainera, aurten hauteskunde sindikalak egingo dira, eta zein bere esparruak bi-latzen hasi da.

ESANAK

ISABEL CELAA
(PSE-EE)

«Aurretik prestatutako probokazioa dira, eta gizartean alarma sortzen dute»

EILAS

«Villar jauna ez litzateke izango gure ikaslerik hobere-na»

EHE

«Espainiako Estatuak euskara suntsitu eta desagerrarazi nahi du»

JOSU JON IMAZ
(Jaurilaritzako eleduna)

«Villarren adierazpenak onartezinak eta iraina dira euskal herritarrentzat»